

KILOMETROAK 26 LAZKAO

- DINAMIKA ABIATZEKO HERRI TOPAKETA -

ONDORIOAK

2025eko ekainaren 14a

Lazkaoko herritar zein eragile guztiei luzatu zaie topaketan parte hartzeko gonbidapena.


Jarraian irakurriko ditzuzuen ondorioak, Topaketan parte hartutako lantaldeetan jasotakoak izateaz gain, Topaketara hurbildu ezin zuten hainbat ekarpenekin ere osatuta daude.

- 180 PARTE HARTZAILE (Talde oso anitza)
- 16 DINAMIZATZAILE
- BATZORDEEN IREKIERA



Adina

174 erantzun



Parte hartutako eragileak honako hauek dira:

- Udala
- Maizpide
- Gerriko
- Gazte Asanblada
- Zagupe Aisialdi taldea
- Oin-Arin dantza taldea
- Euskara taldea
- Talde Feminista
- Jo Ta Ke Lazkaon
- Bakuntza Aisialdi elkarte
- Buruhandi eta Erraldoi Konpartsa
- Lazkao txiki musika eskola
- Amalur

ARTEZKARITZAREN PROPOSAMENAK



“ **DUELA 50 URTE** Lazkaon bertan hasi genuen bidean aurrera jarraitzen dugu, **IKASTOLEN PROIEKTUA EZAGUTARAZTEKO, HEDATZEKO ETA BALIOAN JARTZEKO** asmoz: norbanako, familia eta elkarte anitzek osatutako **KOMUNITATE ZABAL BATEN ELKARLANEAN** oinarritzen dena, hasierako helburu eta helmuga berbera (**EUSKARA ETA EUSKALTZALETASUNA HEZKUNTZATIK BULTZATZEA**) mantenduz proiektu pedagogiko propioa garatzen duena, eta bere ibilbidea erronka berrietara etengabe egokitzen duena (**KULTURANIZTASUNA**, eduki sortzaile berrien eta sare sozialen eragin disruptiboa...) ”

TOPAKETAN BILDUTAKO IDEIA NAGUSIAK

Kilometroak 26 helburuak matizatu, aberastu edo berriak proposatu.

Jendea erabat ados dago artezkaritzak proposatu dituen helburuekin. Zehaztasun mailan ekarpenak egon diren arren, helburuen erredakziorako proposamen berririk ez da egin.

AZPIMARRATZEKOAK

Erroetara buelta. Zergatik sortu zen ikastola, sentimentu hori berreskuratu eta zabaldu

Belaunaldi desberdinetara iristea (jende heldua batez ere).

Iragana kontatu, nondik gatozenaren kontzientzia garatu.

Parte hartzaile sentiarazi.

Familia desberdinak parte egin, ikastolatik urrunago dagoen jendea gerturatu.

Proiektu herrikoia. Ikastola herriratu behar dugu, ekintza asko barrura begira egiten dira, herrira ireki, zabaldu beharra. (Pribatu eta elitista etiketatik irten. Gu zer gara)

Egiten diren ekintza guztietan ZEIN DEN HELBURUA GARBI IZATEA. (hau ez "deskafeintzatzea").

IDEIA GUZTIAK:

1. Ikastolako komunitatearen partaidetza sendotzea, pertenezia eta atxikimendu sentimendua handituz.

- Familia desberdinak kontutan hartu.
- Belaunaldi desberdinetara iritsi. Belaunaldi ezberdinen arteko elkarlana sustatu
- Herriko elkarteek parte hartzea.
- Euskal ez hiztunak euskarara ekarri.
- Festa ez segregatzailea, kulturartekotasunera zabalduta baina Euskaratik eta Euskal Kulturatik. Kanpotik etorri direnentzako herri-bizitzarako zubi izan dadila.
- Egitarauan DENONTZAKO zerbait egongo dela bermatu behar da.
- Familia etorkinei Kilometroak zer den adierazi.
- Herria partaide sentiarazi, ardura konpartitu.
- Neurri desberdinetako parte-hartzea onartu behar dugu, bakoitzak bere toki/ezaugarri/ahalmenetik eman dezala ahal duena.
- Euskarara indarra egin, erabilgarri egin, erdal hiztunak euskarara konbentzitu.

- Garrantzitsua da jatorrizko helburuak eta balioak (euskara, komunitatea, elkarlana) gaur egungo gazte eta familiei transmititzea.

2. Ikastolaren proiektu pedagogikoari jarraipena emateko LH eraikinean berrikuntzak egitea.

3. 50.edizioa dela urtean zehar zein azken jaian presente izatea.

- Familia euskaldunetako gazteengan transmisio ariketa, baloreak, ikastolen sorkuntza...
- Iragana kontatu, istoria kontutan hartu, aitortza eta errekonozimendu bat egin. Lehen partaideak berreskuratu, beraien eskutik sorkuntza entzun.
- Transmisioa, ikastola zer den.
- Sorreraren transmisioa bermatzea. Gaur egungo guraso askok ez dute ikastolen sorreraren eta helburu historikoen berri. Gurasoengan sentimendu bat piztu, zirikatu.
- Sorrerako sentimendua bizirik mantentzea.
- Kilometroak 50. edizioa izango bada ere, lehen edizioko sentimendu berdina izaten jarraitzen dugu, ardatza mantentzen da.
- orain 50 urtekoa ezagutzera eman, balioan jarri eta jarraipena eman (harrotasunetik eta transmisioa bermatuz)

Lazkaoko ikastolak dituen ezaugarrien arabera, zer azpimarratu nahi dugu Kilometraoak 26arekin?

AZPIMARRATZEKOAK

Herriaren erdigunean, bihotza, herria bilduz, erakunde ezberdinekin elkarlanean
Denona, ongi etorri denok gurera

Elkarlana eta herria bera eragile izatearen garrantzia azpimarratuko nituzke nik, ez momentu honetan ikastolako kide garenona bakarrik.

- Heritik sortua eta komunitate anitz osoa biltzen duen ikastetxe euskaltzalea.
- Kmk 26, komunitate osoaren partehartzea reaktibatu eta ikastolaren baloreak herri anitz osora zabatzeko hasera edo bultzada berri bat izan behar da!!

IDEIA GUZTIAK:

- "Andereñoen" indarra sormen garaian, sorreraren **TRASMISIOA** galdu da. Ikastolaren esentzia berreskuratu eta mantendu beharra, nondik gatozen, zergatik sortu ginen,... ikastolako kide guztiei jakinarazi behar zaie.
- Beti izan gara **AINTZINDARI** metodologia, pedagogia alorrean.
- Ikastolaren **BALOREAK** fokoa markatu dute.
- Herriaren parte da ikastola, **HERRI OSOARENA**. Heritik sortutakoa da. Herriko beste eragile, komunitate eta norbanakoen arteko saretze lana egiten du. Komunitate osoa biltzen du eta baloreak transmititzen ditu. Herria elkartzen du eta aldi berean herrian presentzi handia du. Herririk eta herriarentzat sortutakoa. Komunitatea "josteko" ikastolak izan dezake "haria".
- Izaera **EUSKALDUNA** eta **EUSKALTZALEA** du. Herriko ikastetxe bakarra, euskara eta euskal kultura transmititzen dituen.
- Ikastolaren **KOKAPENA** herriaren erdigunean, bihotza, herria bilduz. Kokapenari garrantzia eman, herria, eskualdea, euskaraz bizi garela...
- Txikia sorreran handia gaur, bakarra. Bakarra hitza baino **DENONA**. Ikastetxe bakarra izatea, onerako eta txarrerako, herritar guztien bilgune, zenbaitentzat inposatua (besterik ez dagoelako). 0-18 eskaintzen duena.
- Anitza, **ANIZTASUNA** balio bezala ikusi, bidelagun. Herri osoko ikastola izateak inklusibo eta kulturانيتza izatea eragiten du.
- Gurea zabaltu, ulertarazi, ezagutzera eman, nora etorri diren jakinarazi, beraiena errepetatuz.
- **ELKARLANA**ren garrantzia, alde batetik ikastola osatzen dugunon komunitateari dagokionez, bestetik herriarena, herriko eragile garrantzitsu den heinean, herritar eta talde ezberdinen artekoa.

Kilometroak 26 jaiak: zer izan behar du eta zer ez?

AZPIMARRATZEKOAK

Ibilaldia egin behar dela, Nafarroa Oinez-en giroa lortu behar dela, herri guztira zabaldua eta euskararen alde egiten diren ekintzak, KM bukatu ondoren mantendu behar direla (euskara akademikotik, berriro herriko hizkuntza izatera pasatzeko helburuarekin)

- HERRIKO ERAGILE GUZTIEN NAHIZ HERRITAR OROREN PARTE HARTZEA SUSTATZEA

-KILOMETROETAKO BATZORDEAK ERATZERAKO ORDUAN BELAUNALDIKOTASUNA KONTUAN IZATEA

50 urte 50 ekintza (mota askotakoak, xumeak)

Urtean zehar ekintzak (HERRIKO AUZO EZBERDINETAN BANATUAK) egon behar badira ere, iritzi orokor bat izan da, IBILBIDEA eta GUNEAK egon behar direla azken jai horretan. Gunean belaunaldi ezberdinen artena partekatze ekintzekin, horrela GUNE GUZTIAK GUZTIONAK

IDEIA GUZTIAK:

ZER IZAN BEHAR DA?

- Ikastolen sorrera, **TRANSMISIO** lana egin behar dela. Ikastolaren historia landu eta zabaltzea nahiz ikastolaren sorreran parte hartu zutenen testigantzak jasotzea garrantzitsua da nondik gatozen jakiteko. Adin guztien arteko elkarlana sustatzea eta transmisioa modu natural batean ematea.
- Aukera bat dela Ikastola-Lazkaoko **HERRIA** bat egiteko, eta hau KMK bukatu eta gero ere mantendu behar dela (egiten diren ekintza batzuekin...). Herrikoia. Herri guztientzat: Adin guztietako pertsonak, familiak... (adin ezberdinak nahastuta). Denei eman beren lekua, denok gustura sentitzea
- Lazkaon euskaraldia urtero egin behar dela (KM-euskara sustatzea-euskaraldia egunero/urtero). **EUSKARA**ren presentzia eta protagonismoa ezinbestekoa izan behar da egiten diren ekintza guztietan. Euskara erdigunean izango duen jai. Euskararekiko maitasuna. Herri giroan Euskaraz gozatuz ospatzeko egun berezi bat.
- Herriko gazteentzak erakargarria izan behar dela (20-30 adin tartea, hauek dira gure bezero potentzialak).
- Ibilaldia egin behar dela, eta Nafarroa Oinez-en dagoen giroa lortu.
- Herriko sortzaile eta **ERAGILE**ekin elkarlana egin behar dela ekitaldi ezberdinak antolatu eta aberasteko asmoz.
- Jendeari lan egiteko aukera eman behar zaiola (eta babesa hori egiteko). Ikastolako ikasle guztiek parte hartu/lan egin behar dutela (ikasleak 0-18). 50 urte direnez zerbait gogoangarria izan behar dela.

- Orain **50 URTE** lanean ibili zirenei protagonismoa ematea ere aipatu da. Orain 50 urte egindako ibilbidea osatzea planteatu da. Hazia ureztatzen jarraitu. Lehena-oraina-geroa. 50 urte, 50 ekintza, beste 50 urterako bultzada. 50 urte hauetan ikastolako gertaera garrantzitsuenak gogorarazi. 50 urte hauetan egindako lana eta lortutakoak ospatzeko, harrotasuna sentitzeko, koesiorako... egun bat.
- **INKLUSIBOA**: Denon festa izan behar da, pertsona oro ongi etorria izango da. Aniztasun funtzionala ere kontuan hartu behar da espazio irisgarriak jarritz. Feminismoa. Anitza
- **KULTURARTEKOTASUNA**: Euskal kultura oinarri izan behar bada ere, lazkaon dauden beste kultura batzuk presentzia izatea aipatu da, herritar guztiak parte hartzera bultzatuz, beraien kulturatik euskal kulturarako bidaia egitea proposatu da.
- **IKASTOLA**: Ikastola ereduaren jaia. Ikastola denaren isla (herria, balioak, familia...). Ikastolen garrantzia bistaratu eta babestuko duen jaia
- **HEZITZAILEA**
- **ERREBINDIKATIBOA**
- "Muskulua" erakusteko erabili behar da. Ekintzak egiten diren egun horietan bakarrik ez, jarraipena izan behar du aurrera begira ere.
- Urtean zehar ekintzak herriko auzo desberdinetan banatuta egon behar badira ere, iritzi orokor bat izan da, **IBILBIDEA** eta **GUNEAK** egon behar direla azken jai horretan. Gunean belaunaldi ezberdinen artena partekatzeko ekintzekin, horrela **GUNE GUZTIAK GUZTIONAK**

ZER EZ DA IZAN BEHAR?

- **ALKOHOL** festa. Mozkorkeriak murriztu/kontrolatu. Desfasea.
- **ZABORRA** murriztu/kontrolatu.
- Indarkeria
- Ezeren kontra (Proiektu baten alde)
- **BAZTERTZAILEA** (ikastolan ikasi ez dutenek, euskaraz ez dakitenek... parte hartzeko lasaitasuna izan behar lukete)
- Ez da politikarekin lotutako festa izan behar, Ikastolen mugimendua eta euskara ardatz.
- 50 urte ez dadila ziklo baten amaiera bezala sentitu
- Gazteak disfrutatzen bakarrik ez (aportatzen)
- Ez soilik entretenigarria (kulturan fokoa)

Kilometroak 26 Lazkao herrian: “Ez dugu Kilometroak herriarentzat antolatzen, herriarekin baizik!”. Nola gauzatu daiteke esaldi hau?

AZPIMARRATZEKOAK

TRANSMISIOA, AUZOLANA, PROZESU TRANSPARENTEA.

Aniztasuna (kulturartekotasuna eta belaunaldien artekoa). Herritar guztietara iristen saiatu behar gara, ahalik eta aniztasun gehien lortu behar dugu baina beti ere fokoa guregan jarritz.

Adin zein kultura ezberdinetako pertsonen ardurak ematea, horrela herri osora iristeko, pertsonetara eta ez bakarrik taldeetara. Familia gehienek izango dute loturaren bat uneren batean zerbaiten ardura eman zaion norbaitekin (familia zuzena, bizilaguna, lagunaren familia...).

IDEIA GUZTIAK:

- Herriko eragileen partehartzea sustatzea ezinbestekoa izango da, baina beti ere jendeari norbanako bezala garrantzitsua dela adieraziz (jendea ez dadila soilik elkarte baten ordezkaritza moduan etorri)
- Herriko elkarte horiei ulertarazi Kilometroak ez dela soilik ikastolaren jai bat eta haiek ere parte seintiarazi.
- Belaunaldien arteko nahasketa eta transmisioa. Belaunaldien arteko elkarlana ezinbestekoa izango da eta horretarako beraien arteko lankidetzak eta transmisioa sustatu beharko ditugu. Belaunaldi ezberdinen arteko taldekatzeak egin.
- Gazteena egin. Ez da parranda soilik. Transmisioa egiteko unea. Lanketa. Ardurak gazteenei ere eman, festa beraioena egin dezaten.
- Jendeari galdetu zer nolako festa nahi duten. Herritarrek inplikatu: herritarren nahiak entzunez eta aldi berean konpromisuak eskatuz. Ahalik eta prozesu irekiena izan dadila.
- Hainbat kulturetako jendea erakarri. Horretarako kontzientziazio kanpaina ezinbestekoa izango da, festa hau euren izan daitekeela ulertarazi. Informazioa haiengana iristeko hainbat aukera: ikastolatik, Maizpiden kultura horretako norbait euskara ikasten ari bada haren bitartez, zuzenean haiengana joanez...
- Antolatzen dena ez dadila soilik egun bateko festa izan (urte osoko egitarau bat).
- Kulturaniztasuna oso garrantzitsua da baina ez dugu fokoa galdu behar, protagonismoa guk izan behar dugu. Bertako herritarrei garrantzia eta protagonismoa eman behar diegu eta haiek zaindu.
- 2003ko Kilometroaken inguruko informazio guztia jaso eta gauza batzuk antzekoak egiten saiatu.
- Plazan ekimen desberdinak egin jendea erakartzeko.
- Prozesu transparentea, ez dadila ikastolan geratu.
- Herriak dituen erronkei aurre egiteko garaian ikastolak duen balioa erakutsiz; hori, herritarrekin, erronkak zein diren entzutek hasten da eta ondoren, ikastolak horien aurrean zer egin dezakeen pentsatuta.

EKIMEN EGITEKO EDOTA PROPOSAMEN ZEHATZAK

AITORTZA, HISTORIA ETA TRANSMISIOA:

- Argazki eta bideo erakusketa. Lazkaoko ikastolaren sorrera eta historia. Lehenengo Kilometraok nola sortu zen, Lazkaoko ikastolaren eraiknaren inguruan zer historia dagoen...
- Hasierako ekintzaileen testigantzak eta irudiak jaso
- 50 urte hauetan ikastolako gertaera garrantzitsuenak gogorarazi
- 1977ko ibilbidea berreskuratu --> Kilometroak txikia? Bertakoentzako soilik ekintza? Mendi martxa, trail lasterketa edo herritarren arteko apustua.
- Euskal jantzien historia
- Antzerkia (euskal historiako zerbait)
- Sukaldaritza tailerrak (helduek umeei garai bateko errezetak erakusteko)
- Joste tailerrak (trasmisioa)
- 50 urte, 50 ekintza
- Mendi irteera bat, non Ikastolaren sortzaileek eta bultzatzaileek beraien testigantzak azalduko lituzketen.

EUSKARA:

- Euskararekiko konpromisoa eskatu: Eskala bat markatu euskararekiko dugun jarrera/egoeran. Kilometroetan parte hartuko dutenei eskala horretan non dauden galdetu eta aurrera pausorik eman nahi badute konpromisoa har dezaten eskatu. Jarraipena egin.
- Euskararen kontzientzia eta euskalzaletasuna bultzatzeko herrian bozgorailuak goiz-eguerdian abestiak zalbalduz, girotuz.
- Euskara ikasteko jolas bat.
- Herri bazkaria abesti euskaldunak kantatuz amaieran

FOLKLOREA ETA KULTURARTEKOTASUNA:

- Kulturartekotasuna lantzea musika eta jolasen bitartez adin guztiak kontuan izanik
- Bertsoak, Kontzertuak
- Bingoa
- Kulturartekotasuna bultzatzeko bazkari bat egin
- Kantujira arratsaldean herri guztian

BESTELAKOAK:

- Kilometroak jaian ibilbidea berreskuratu.
- Abestian eta bideoan herriko jendeak parte hartzea.
- 2. helburuari lotuta: berritutako eremuak nola erabiltzen diren erakutsi.
- "Guraso bat, txanda bat" bezalako ideiekin. Bolondresak bilatzeko ohiko Drive galdetegiez gain, ikasleei orri bana eman, ekarpena egin ahal izateko lan mota ezberdinak proposatuz eta senitarteko bakoitzak gutxienez batean parte hartzeko konpromezua betetz.
- Herriko sortzaileekin tailerrak antolatzea.

BESTE AIPAMEN BATZUK

- Transmisio lana egin behar da. Gazteak, etorkinak gureganatu.
- Helburua ekonomikoa bakarrik izan gabe, zabalagoa izan behar dela aipatu da. Puntu hau zorrotz ikusi beharko dugu, Ikastolak antolatzen duenak zulo ekonomikoa izateko arriskua hartzea erabakitzen bada, herrian zerbait "handia" egin nahi delako, honetaz kontziente izan behar gara eta ahalik eta gehien murriztu (adibidez Udalarekin edo babesle bereziren batekin...) Azkenean jakin zer asumitu nahi dugun.